



SINATZAILEA

Arantzako Udaleko alkatea / Alcalde del Ayuntamiento de Arantzaz
SATURNINO LARRALDE IBARROLA
2025/01/16Ayuntamiento de Arantzaz
Arantzazko Udala

NIF: P3102200G

INDUSTRIA, NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDIAK

2024-2025 KANPAINAKO MENDIKO LANEN (4. NEURRIA) OBRA MENDEBERRIA
ESKABAZIOAK, S.L. ENPRESARI ESLEITZEN DIONA.

Ikusirik Ingurumeneko zuzendari nagusiak, EKAINAREN 19KO 87/2024 Ebazpenaren bidez, tokiko erakundeek eta eragile pribatuek sustatutako mendiko lanetarako laguntzen 2024-2025 mendi kanpainarako oinarri arautzaileak eta deialdia onartu zituela.

Ikusirik Enrique Montero Santa Eugenia baso-ingeniari teknikoak idatzitako 2024-2025 kanpainan Arantzako herri-lurretan egin beharreko mendiko lanak gauzatzeko proiektua.

Ikusirik urtarrilaren 10eko 2/2025 Alkate Ebazpen bidez aipaturiko mendiko lanen proiektuko Buruitza-Itsaszelaieta pistako obraren zatia zenbateko txikiko kontratueterako araubidez esleitzeko prozedura erabiltzeko agindu zela.

Ikusirik 2025eko urtarrilaren 3an Arantzako Udalak hainbat enpresei aipaturiko obra exekutatzeke euren proposamenak aurkezteko gonbidapena helarazi ziela.

Ikusirik eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna 2025eko urtarrilaren 13a zela eta hauek izan direla aurkezturiko eskaintzak:

IZENA	IFK	ZENBATEKOA (BEZa kanpo)
MENDEBERRIA ESKABAZIOAK, S.L.	B71034631	32.276,17 €
I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	B71143911	36.605,91 €
EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L.	B31738131	34.600,00 €
REPOBLACIONES AGUINAGALDE, S.L.	B20950366	38.967,58 €
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	Ez da aurkeztu

EBATZI DUT:

1) 2024-2025 kanpainako mendiko lanen (4. neurria) obra MENDEBERRIA ESKABAZIOAK, S.L. enpresari esleitzea 32.276,17 €-tan (BEZa kanpo).

2) Esleipendunari jakinaraztea obrak, gehienez ere, **2025eko urriaren 1erako bukatuak egon beharko direla.**

3) Esleipendunari jakinaraztea obra hau kontratistaren arrisku eta menturarekin gauzatuko dira, eta kontratistaren kontura izanen dira kontratua gauzatzean izaten dituen galera, matxura edo galerak, interesdunak aseguratu ahal izateari kalterik egin gabe.

4) Esleipendunari jakinaraztea Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 70. artikuluan xedaturikoaren arabera, aurkezturiko eskaintzaren %4eko behin betiko bermea (1.291,05 €) aurkeztu beharko duela Arantzako Udalean 7 EGUNEKO epean, Ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, esleipena indarrean sartu dadin. Era berean, obraren jasotze akta sinatu eta biharamunetik kontatzen hasita URTE BATEKO epean mantenduko da bermea. Horrela bada, aipaturiko epea iraganda, dena zuzen badago, bermea esleipendunari itzuliko zaio.

5) Esleipendunari jakinaraztea proiektuan ezarrita ez dagoen guztirako, Kontratu Publikoei buruzko 2/218 Foru Legea eta gainerako araudia aplikatuko dela.

6) Ebazpen hau interesatuei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.



ARANTZA

Egiaztapen-aseguru kodea: 7CAA AAFW TQML JMDA NWXA

Resolución Nº 6 de 16/01/2025 "2024-2025 KANPAINAKO MENDIKO LANEN (4. NEURRIA) OBRA KONTRATU ESLEIEPNA." - SEGRA 58927

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.arantzaz.eus/> 1tik 1 orrialdea